



Desagertutako hiru-laurdenaren abentura

ARTHUR CONAN DOYLE



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ARTHUR CONAN DOYLE

Desagertutako hiru- laurdenaren abentura

itzulpena:

Saioa Gómez Canga

zuzenketa:

Miren Bacigalupe García

maketazioa:

Irati Petralanda Pardo

Baker Streeten nahiko ohituta geunden telegrama arraroak jasotzera, baina gogoan dut batez ere bat otsaileko goiz goibel bat iritsi zitzaiguna, duela zazpi-zortzi urte, eta Sherlock Holmes jauna ordu laurden batez zur eta lur utzi zuena. Harengana zuzenduta zegoen eta honako hau zioen: «Itxaron, mesedez. Zorigaitz izugarria. Eskuineko hiru-laurdena falta da; ezinbestekoa biharko. — Overton». «Strandeko zigilua du, eta hamarrak eta hogeita hamaseian bidalia izan da», esan zuen Holmesek, behin eta berriz irakurriz. «Overton jauna oso aztoratuta zegoen bidali zuenean, eta, beraz, zerbait inkoherentea. Beno, beno, uste dut hemen egongo dela The Times-i begiratu bat ematen diodanerako, eta orduan dena jakingo dugu. Arazo txikiena ere ongi etorria izango litzateke geldialdi-aldi hauetan».

Izan ere, gauzak oso motel zebiltzan gure artean, eta ikasi nuen jarduerarik gabeko aldi horien beldur izaten, zeren esperientziaz banekien nire lagunaren burua hain zela neurritz kanpo aktiboa, arriskutsua zela landu beharreko gairik gabe uztea. Urteak eman nituen droga-zaletasun hartatik aldentzen, bere garaian bere ibilbide bikaina geldiaraztearekin mehatxatu baitzuen. Orain banekien, baldintza normaletan, ez zuela jadanik estimulu artifizial hori desiratzen, baina oso kontziente nintzen deabrua ez zela hil, lo baizik; eta banekien loa arina zela, eta gertuko esnatzea, jarduerarik gabeko aldietan, Holmesen aurpegi aszetikoan begirada ahuldua eta haren begi sakon eta arakaezinen hausnarketa iluna ikusten zituenean.

Horregatik bedeinkatu nuen Overton jauna, edonor zela ere, bere mezu misteriotsuarekin etorri baitzen nire lagunarentzat bere bizitza nahasiko ekaitz guztiak baino arriskutsuagoa zen baretasun arriskutsu hori haustera.

Espero genuen bezala, telegramari bere igorleak jarraitu zion handik gutxira, eta Cyril Overton jaunaren bisita-txartelak, Cambridgeko Trinity Collegekoak, mutil gazte handi bat zetorrela iragartzen zuen, hamasei stone inguruko hezur eta muskulu trinkokoa, atalase osoa hartzen ari zena bere sorbalda zabalekin, eta batari eta besteari begiratzen ziguna aurpegi atsegin batez, baina kezka jota. — Sherlock Holmes jauna? Nire lagunak burua makurtu zuen.

— Scotland Yarden izan naiz, Holmes jauna. Stanley Hopkins inspektorea ikusi dut. Zuregana joateko aholkatu zidan. Esan zuen kasua, berak ikus zezakeenez, gehiago egokitzen zitzaiola zure esparruari, polizia arruntari baino gehiago. — Mesedez, eseri eta kontaidazu zer gertatzen den.

«Ikaragarria da, Holmes jauna, ikaragarria besterik ez! Harritu egiten nau ilea grisa jarri ez izanak. Godfrey Staunton... entzun duzu haren berri, noski? Talde osoaren ardatza da, besterik gabe. Nahiago nuke aurreko lerroko bi jokalaria galdu eta Godfrey nire hiru-laurdeneko lerroan eduki. Pasean, plakatzean edo dribblingean, inork ez du itzalik egiten; eta, gainera, burua du eta talde osoari batasuna emateko gai da. Zer egingo dut? Horixe galdetzen dizut, Holmes jauna. Moorhouse dago, lehen ordezkoa, baina half gisa entrenatuta dago, eta melean sartzeko joera izaten du beti, alboko marraren inguruan mantendu beharrean. Leku-ostikoetan ona da, egia da, baina, bestalde, ez du irizpiderik eta ez du batere sprintik egiten. Hara, Mortonek edo Johnsonek, Oxfordeko esprinterrek, arazorik gabe aurreratu ahal izango lukete.

Stevenson nahikoa azkarra da, baina ez luke hogeita bost marratik drop bat egiten jakingo, eta hiru-laurden ez punteatzen ez dropik egiten ez dakienak ez du merezi postu bakar bat bere abiaduragatik. Ez, Holmes jauna, galduta gaude Godfrey Staunton aurkitzen lagundu ezean». Nire adiskideak harriduraz entzuna zuen hitzaldi luze hura, indar eta seriotasun ikaragarri eman, non argudio bakoitza indartu egiten baitzen bere esku sendoak hizlariaren belauna kolpatuz. Gure bisitaria isildu zenean, Holmesek eskua luzatu eta «S» letra atera zuen bere ohar-liburutik. Behingoz, alferrik arakatu zuen askotariko informazio-meategi hartan.

— Arthur H. Staunton dago, izen handia hartzen ari den faltsutzaile gaztea — esan zuen —, eta Henry Staunton zegoen, urkatzeko bidean lagundu nuena, baina Godfrey Staunton izen berria da niretzat. Orain gure bisitariak ematen zuen harrituta zegoela. — Hara, Holmes jauna, uste nuen guztiaren berri zenuela — esan zuen —. Beraz, Godfrey Staunton ezagutzen ez baduzu, Cyril Overton ere ez duzu ezagutuko. Holmesek buruari eragin zion, umore onez. — Jainkoarren! Baina ni izan nintzen Ingalaterraren lehen ordezkoa Galesen aurka, eta unibertsitateko taldeko kapitaina izan naiz aurten. Baina hori ez da ezer! Ez nuen uste Ingalaterran Godfrey Staunton ezagutzen ez zuen pertsonarik zegoenik, Cambridge, Blackheath eta nazioarteko bost partidu. Ene Jainkoa! Holmes jauna, non bizi izan zara? Holmesek barre egin zuen erraldoi gaztearen harridura xaloaren aurrean.

«Nirea ez bezalako beste mundu batean bizi zara, Overton jauna, atseginagoa eta osasungarriagoa. Nire harremanak gizarteko sektore askotara hedatzen dira, baina inoiz ez dut atsegin esaten kirol

amateurra, Ingalaterran dagoen gauzarik onena eta osasuntsuena dena. Hala ere, gaur goizean izan duzun ustekabeko bisitak erakusten dit aire fresko eta joko garbiko mundu horretan ere lana egon daitekeela niretzat; beraz, orain, jauna, eser zaitez eskatzen dizut, eta lasai eta astiro konta diezadazun zer gertatu den eta nola nahi duzun zuri laguntzea».

Overton gaztearen aurpegiak burua baino giharrak erabiltzen ohituago dagoenaren nahasmendu-itxura hartu zuen, baina pixkanaka, bere kontakizunetik kanpo utziko ditudan errepikapen eta pasarte nahasien ondoren, bere istorio bitxia azaldu zigun. — Gauzak horrela dira, Holmes jauna. Esan dudana bezala, Cambridgeko Unibertsitateko errugbi taldeko kapitaina naiz, eta Godfrey Staunton da nire jokalaririk onena. Bihar Oxforden aurka jokatuko dugu. Atzo denok iritsi ginen eta Bentleyko hotel pribatuan hartu genuen ostatu. Gaueko hamarretan buelta bat eman nuen eta mutil guztiak lotara joan zirela ikusi nuen, entrenamendu zorrotzean eta taldea sasoi mantentzeko adina lo egitean sinesten baitut. Godfreyri hitz batzuk esan nizkion oheratu baino lehen. Zurbila eta kezkatua iruditu zitzaidan. Zer gertatzen zitzaion galdetu nion. Ondo zegoela esan zidan, buruko min txiki bat baino ez zuela.

Gabon opa nion eta joan egin nintzen. Ordu erdi geroago, atezainak esan zidan bizar zakarreko gizon batek ohar batekin deitu ziola Godfreyri. Ez zen oheratu eta bere gelara eraman zuten. Godfreyk irakurri eta aulki batean erori zen, aizkorakada bat eman baliote bezala. Atezaina hain beldurtu zen ezen nire bila etortzekoa baitzen, baina Godfreyk geldiarazi egin zuen, ur

zurrut bat edan eta berriro osatu zen. Gero eskailerak jaitsi, sarreran zain zegoen gizonari hitz batzuk esan, eta elkarrekin joan ziren biak. Atezainak ikusi zituen azken gauza izan zen ia kalean korrika zihoazela Strand aldera. Gaur goizean, Godfreyren gela hutsik zegoen, bere ohean ez zuen inork lo egin, eta bere gauza guztiak aurreko gauean utzi zituen bezala zeuden. Aurretik abisatu gabe joan zen ezezagun horrekin, eta harrezkero ez dugu haren berririk izan. Ez dut uste inoiz itzuliko denik.

Godfrey kirolaria zen hezur-muineraino, eta ez zion entrenatzeari utziko, eta ez lioke bere kapitainari huts egingo, berarentzat boteretsuegia zen arrazoiren batengatik ez balitz. Ez; betiko joan dela iruditzen zait, eta ez dugula berriro ikusiko». Sherlock Holmesek arreta handiz entzun zuen kontakizun bitxi hau. «Zer egin zenuen?», galdetu zuen. «Cambridgera telegrama bat bidali nuen, han haren berri izan ote zuten jakiteko. Erantzuna jaso dut. Inork ez du ikusi. «Cambridgera itzul zitekeen?» «Bai, tren berantiar bat dago, hamaikak eta laurdenetan». «Baina, dakizunez, ez zuen hartu?»

«Ez, ez dute ikusi». «Zer egin zenuen gero?» «Telegrama bat bidali nion Lord Mount-Jamesi». «Zergatik Lord Mount-Jamesi?» «Godfrey umezurtza da, eta Lord Mount-James da bere ahaiderik hurbilena; osaba, uste dut». — Hara. Horrek argi berria ematen dio gaiari. Lord Mount-James Ingalaterrako gizonik aberatsenetakoa da. — Hori entzun diot Godfreyri. — Eta zure laguna hurbileko ahaidea zen? — Bai, bere oinordekoa zen, eta agureak ia laurogei urte ditu, gota gaixotasunak jota egoteaz gain. Billarreko takoa hatz-koskorrekin igurtz zezakeela esaten dute. Inoiz ez dio txelin bat ere eman Godfreyri bere bizitza osoan, benetako zeken hutsa delako, baina azkenean dena berari iritsiko zaio. — Lord Mount-Jamesen berririk izan duzu? — Ez.

«Zer arrazoi izan lezake zure lagunak Lord Mount-James ikustera joateko?» «Beno, aurreko gauean zerbaitek kezkatzen zuen, eta diruarekin zerikusia bazuen, litekeena da hurbilen zuen ahaidearengana joatea, hainbeste baitzuen, baina entzun dudanagatik ez zuen lortzeko aukera handirik izango. Godfreyk ez zuen gogoko agurea. Ez zen joango saihestu ahal izango balu». «Beno, hori laster erabaki ahal izango dugu. Bere adiskidea Lord Mount-James senidearengana joaten bazen, orduan azaldu beharko du hain ordu beranduan gizon zakar haren bisita, eta haren etorrerak sortu zuen asaldura». Cyril Overtonek burura eraman zituen eskuak. «Ez diot zentzurik ikusten», esan zuen. «Beno, beno, eguna libre daukat eta gustura ikertuko dut gaia», esan zuen Holmesek. «Biziki gomendatzen dizut zure partidarako prestaketak zaldun gazte hori kontuan hartu gabe egitea.

Zuk diozun bezala, premia larria izan behar zuen halako moduan alde eginarazi zionak, eta litekeena da premia horrek berak urrunduta edukitzea. Goazen elkarrekin hotel horretara, eta ikus dezagun atezainak argi berriren bat bota dezakeen»

Sherlock Holmes maisua zen lekuko apal bat gustora sentiarazteko, eta laster, Godfrey Stauntonen gela hutsaren intimitatean, hark zekien guztia atera zion atezainari. Aurreko gaueko bisitaria ez zen jaun bat, ezta langilea ere. Atezainak «itxura arrunteko gizon» gisa deskribatu zuena besterik ez zen: berrogeita hamar urte inguruko gizon bat, bizar griskara,

aurpegi zurbila eta janzkera xumea zituena. Urduri zirudien. Atezaina ohartu zen eskua dardarka zuela oharra eman zionean. Godfrey Stauntonek poltsikoan gorde zuen oharra. Stauntonek ez zion gizonari sarreran eskua eman. Esaldi gutxi batzuk trukatu zituzten, eta atezainak «ordu» hitza baino ez zuen bereizi. Gero presaka alde egin zuten, deskribatu bezala. Hamarrak eta erdiak ziren, sarrerako erlojuaren arabera. — Ea ba — esan zuen Holmesek, Stauntonen ohean eseriz —. Eguneke atezaina zara, ezta?

— Bai, jauna; nire txanda hamaiketan amaitzen da. — Uste dut atezainak gauzez ez zuela ezer ikusi, ezta? — Ez, jauna; antzerkiko talde bat berandu iritsi zen. Beste inor ez. — Atzo egun osoa lanean eman zenuen? — Bai, jauna. — Mezurik eraman al zenion Staunton jaunari? — Bai, jauna; telegrama bat. — A! Bai interesgarria. Zer ordutan izan zen hori? — Seiak aldera. «Non zegoen Staunton jauna jaso zuenean?» «Hemen, bere gelan.» «Bertan zinen ireki zuenean?» «Bai, jauna; zain geratu nintzen ea erantzunik zegoen ikusteko.» «Beno, ba al zegoen?» «Bai, jauna. Erantzun bat idatzi zuen.» «Zuk eraman al zenuen?»

«Ez; berak jaso zuen.» «Baina zure aurrean idatzi al zuen?» «Bai, jauna. Ni ate ondoan nengoen zutik, eta bera, bizkarrez, mahai hartan. Idatzi zuenean, esan zuen: «Oso ondo, atezaina, neronek eramango dut»». «Zerekin idatzi zuen?» «Luma batekin, jauna». «Inprimaki telegrafikoa mahai gainean zegoenetako bat al zen?» «Bai, jauna; goikoa zen». Holmes zutitu egin zen. Inprimakiak hartu, leihoraino eraman eta arretaz aztertu zuen gainean zegoena. «Lastima da arkatzez ez idaztea», esan zuen, eta berriro erortzen utzi zituen, etsipenezko sorbaldak jasota. «Zalantzarik gabe maiz ikusiko zenuen bezala, Watson, tintak askotan marka uzten du azpiko paperean, ezkontza zoriontsu bat baino gehiago desegin duen gertaera. Hala ere, hemen ez dut arrastorik aurkitzen.

Pozten nau, hala ere, luma zabal batez idatzi zuela ikusteak, eta ez dut dudarik paper xurgatzaile honetan arrastoren bat aurkituko dugula. — A, bai, horixe bilatzen genuen, dudarik gabe! — Paper xurgatzailetik tira bat kendu eta hieroglifiko hau erakutsi zigun: Cyril Overton oso hunkituta zegoen. — Jarri kristalaren kontra! — hots egin zuen. — Ez da beharrezkoa — esan zuen Holmesek —. Papera fina da eta atzealdeak mezua emango digu. Hemen dago. Buelta eman eta irakurri genuen: «Beraz, hori da Godfrey Stauntonek desagertu baino ordu batzuk lehenago bidali zuen telegramaren azken zatia. Gutxienez sei hitzek ihes egin digute mezutik; baina geratzen denak — «Egon gure ondoan, Jainkoarren!» — erakusten du gazte horrek arrisku ikaragarria ikusi zuela, eta arrisku horretatik beste norbaitek babes zezakeela. ««Gure» hitza, kontuan hartu. Beste pertsona bat zegoen tartean.

Nor izan zitekeen, aurpegi zurbil bizardun gizona izan ezik, hain urduri zegoela zirudiena? Zein da, orduan, Godfrey Staunton eta gizon bizardunaren arteko lotura? Eta zein hirugarren iturritara jo zuen bakoitzak berehalako arriskuaren aurkako laguntza bila? Gure ikerketa horretara mugatu da». — Telegrama hori nori zuzenduta dagoen jakin besterik ez dugu egin behar — iradoki nuen. — Horixe, Watson maitea. Zure gogoeta, sakona izan arren, burutik pasatua zitzaidan. Baina ausartuko naiz esatera agian konturatuko zinela, posta-bulego batean sartu eta besteren mezu baten kopia ikustea eskatzen baduzu, baliteke enplegatuek zuri atsegin emateko uzkur agertzea. Hainbeste burokrazia dago kontu hauetan! Hala ere, ez

dut zalantzarik, delikatutasun eta ukimen pixka batekin helburua lortu ahal izango da. Bitartean, zure aurrean, Overton jauna, mahai gainean geratu diren paper hauek berrikusi nahi nituzke». Zenbait gutun, faktura eta koaderno zeuden, Holmesek behatz bizkor urduriz eta begirada zorrotz eta arinez arakatu eta aztertu zituenak. «Hemen ez dago ezer», esan zuen azkenean. «Bide batez, zure laguna gazte osasuntsua zela uste dut; ez al zitzaion ezer gertatzen?». «Kanpai baten moduan osasuntsu». «Inoiz ikusi al duzu gaixorik?» «Egun bakar bat ere ez. Entrenamenduko kolpe batekin geldirik egon da eta behin errotula atera zitzaion, baina hori ez zen ezer izan». «Agian ez zen zuk uste bezain indartsua. Uste dut arazo ezkuturen bat izan zezakeela.

Zure baimenarekin, paper horietako bat edo bi poltsikoan gordeko ditut, gure etorkizuneko ikerketarako baliagarriak izango badira ere». «Unetxo bat! Une batez!«, oihu egin zuen ahots kehati batek, eta, begiak altxatzean, agure txiki eta arraro bat topatu genuen, ateko atarian mugitzen eta bihurritzen ari zena. Beltz zaharkituz jantzirik zegoen, hegal zabal-zabaleko kapela kopaduna eta gorbata zuri zabala zituen soinean; multzo osoa oso erretore landatarra edo lurperatzaile baten laguntzailea zela ematen zuen. Hala ere, nahiz eta itxura xelebrea eta irrigarria izan, ahotsa zorrotza eta latza zuen, eta jarrera bizkorra, errespetua gailentzen zuena. — Nor zara zu, jauna, eta zein eskubidez ukitzen dituzu jaun honen paperak? — galdetu zuen. — Detektibe pribatua naiz, eta haren desagerpena argitzen saiatzen ari naiz. — A, benetan? Eta nork agindu dizu hori?

— Jaun hori, Staunton jaunaren laguna, Scotland Yardek bidali zidan. — Nor zara zu, jauna? — Cyril Overton naiz. — Orduan zuk bidali zenidan telegrama. Lord Mount-James dut izena. Bayswaterren autobusak ekarri nauen bezain laster etorri naiz. Detektibe bat kontratatu duzu? — Bai, jauna.

— Eta prest zaude gastuak ordaintzeko? — Ez dut zalantzarik, jauna, nire lagun Godfrey, aurkitzen dugunean, prest egongo dela horretarako. — Baina ez dute inoiz aurkitzen, e? Erantzun horri! — Kasu horretan, zalantzarik gabe, zure familiak... — Ezta gutxiago ere, jauna! — oihu egin zuen gizontxoak —. Ez espero niganik xentimorik, ezta xentimorik ere! Ulertzen duzu, detektibe jauna! Gazte honek duen familia osoa naiz, eta esaten diot ez naizela erantzulea. Itxaropenik badu, dirua inoiz xahutu ez dudalako da, eta ez dut orain hasiko. Hainbeste askatasun hartzeko erabiltzen diren paper horiei dagokienez, ohartarazten dizut, haien artean balio pixka bat izanez gero, kontu zorrotzak eskatuko zaizkizula, egiten duzunagatik». «Oso ondo, jauna», esan zuen Sherlock Holmesek. «Bitartean, galdetu al diezazuket ea gazte horren desagerpena azaltzeko teoriarik duzun?». «Ez, jauna, ez daukat.

Bere kabuz moldatzeko bezain handia eta handia da, eta galtzeko bezain ergela bada, erabat uko egiten diot bere bilaketan joateko erantzukizuna onartzeari». «Ezin hobeto ulertzen dut bere jarrera», esan zuen Holmesek, begietan distira pikaroa zuela. «Agian zuk ez duzu nirea erabat ulertuko. Godfrey Staunton gizajo bat izan dela dirudi. Bahitua izan bada, ezin izan da berak duen ezergatik izan. Zure aberastasunaren ospea nonahi zabaldu da, Lord Mount-James, eta litekeena da lapur talde batek bere iloba bahitu izana harengandik bere etxeari, ohiturei eta altxorrari buruzko informazioa lortzeko». Gure bisitari ezatsegin eta ñimiñoaren

aurpegia lepoko zuria bezain zurbil jarri zen. «Jainkoarren, jauna, hau ideia! Ez zitzaidan sekula horrelako zitalkeriarik bururatuko! Zein lotsagabe ankerrak dauden munduan! Baina Godfrey mutil ona da, leiala. Ezerk ez luke bultzatuko osaba zaharra salatzerara.

Gaur arratsaldean zilarrezko ontziteria bankura eramango dut. Bitartean, ez aurreztu ahaleginik, detektibe jauna! Mesedez, ez utzi harririk mugitu gabe, osorik eta onik ekartzeko. Diruari dagokionez, tira, bost libra badira, edo hamar ere bai, beti nirekin kontatu ahal izango duzu». Bere aldarre txarrean ere, noble zekenak ezin izan zigun inolako informaziorik eman, ezer gutxi baitzekien bere ilobaren bizitza pribatuaz. Gure arrasto bakarra telegrama moztuan zegoen, eta haren kopia bat eskuan, Holmes bere ikerketaren bigarren katebegia bat aurkitzeko prest jarri zen. Lord Mount-Jamesez libratu ginen, eta Overton joan egin zen bere taldeko gainerako kideei gertaturiko zorigaitzaz galdetzerara. Telegrafo bulego bat zegoen hoteletik hurbil. Haren aurrean gelditu ginen.

— Merez du saiatzea, Watson — esan zuen Holmesek —. Jakina, agindu judizial batekin telegrama-kopiak ikustea eska genezake, baina oraindik ez gara fase horretara iritsi. Ez dut uste aurpegirik gogoratuko dutenik hain leku jendetsuan. Saiatu gaitezen.

— Sentitzen dut zu gogaitzea — esan zion, bere tonurik atseginenaz, burdin sarearen atzean zegoen neska gazteari —; akats txiki bat dago atzo bidali nuen telegrama batean. Ez dut erantzunik jaso, eta beldur naiz azkenean nire izena jartzea ahaztu ote zaidan. Esango didazu hala izan den? Neskak telegrama-kopiak begiratu zuen. — Zer ordutan izan zen? — galdetu zuen. — Seiak pasatxo. — Nori zegoen zuzenduta? Holmesek behatz bat ezpainetara eraman eta begiratu egin zidan. — Azken hitzak «Jainkoaren izenean» ziren — xuxurlatu zuen isilpean —; asko kezkatzen nau erantzunik jaso ez izanak. Neskak formulario bat bereizi zuen. — «Hemen dago. Ez dago izenik», esan zuen, mostradore gainean lisatuz. «Horrek, noski, azaltzen du erantzunik jaso ez izana», esan zuen Holmesek. «Hara, zein tontoa izan naizen, zalantzarik gabe! Egun on, andereño, eta eskerrik asko gaintetik zama bat kentzeagatik».

Hortz artean barre egin eta eskuak igurtzi zituen berriro kalean elkartu ginenean. «Eta?» galdetu nuen. — Aurrera goaz, Watson maitea, aurrera goaz. Zazpi plan nituen telegrama hori ikusteko, baina ezin nuen espero lehenengoan arrakasta izatea. — Eta zer lortu duzu? — Abiapuntu bat gure ikerketarako. — Taxi bati deitu zion —. «King's Cross geltokia», esan zuen. — Bidaia bat dugu zain, beraz?

— Bai; uste dut elkarrekin joan behar dugula Cambridgera. Arrasto guztiak norabide horretan apuntatzen ari direla iruditzen zait. — Esan — galdetu nion, Gray's Inn Roadetik zalgurdiaren zaratan gindoazela —, ba al duzu susmorik desagertzearen arrazoiari buruz? Ez dut uste, izan ditugun kasu guztietatik, arrazoirik hain ilunak izan direnik. Ziur asko, ez duzu benetan imajinatuko bere osaba aberatsa salatu ahal izateko bahitu zutenik?» «Aitortzen dut, Watson maitea, hori ez zaidala oso azalpen probablea iruditzen. Hala ere, iruditu zitzaidan bera izango zela agure desatsegin hari gehien interesatuko zitzaion azalpena». «Zalantzarik gabe, hala da. Baina zer beste aukera daude? «Hainbat aipa nitzake. Onartu behar duzu bitxia eta

iradokitzailea dela gertakari hori partida garrantzitsu honen bezperan gertatzea eta taldearen arrakastarako funtsezkoa dirudien gizon bakarra ukitzea.

Jakina, kointzidentzia bat izan daiteke, baina interesgarria da. Kirol amateurra apusturik gabe dago, baina ikusleen artean apustu estraofizial ugari egiten dira, eta litekeena da norbaitek jokalaria bat jokalaria bat bidetik kentzea errentagarria izatea, lasterketetako hipodromoko gaizkileek lasterketa-zaldiekin egiten duten bezala. Hori da azalpen bat. Bigarren azalpen agerikoa, gazte hau benetan dirutza handi baten oinordekoa izatea da, nahiz eta gaur egun bere baliabideak apalak izan, eta ez da ezinezkoa bahitzeko eta erreskatea eskatzeko konplot bat egin izana. — Teoria horiek ez dute kontuan hartzen telegrama. «Oso egia, Watson. Telegrama da, oraindik ere, daukagun gauza zehatz bakarra, eta ez dugu utzi behar gure arreta hortik aldentzen. Telegrama honen helburuaz argitzera goaz orain Cambridgera.

Gure ikerketaren bidea oraingoz iluna da, baina asko harrituko nintzateke ilunabarra baino lehen argitu ez bagenu edo nabarmen aurreratu ez bagenu». Gaua zen unibertsitateko hiri zaharrera iritsi ginenerako. Holmesek taxi bat hartu zuen geltokian eta Leslie Armstrong doktorearen etxera joateko agindu zion kotxezainari. Minutu batzuk geroago, kale jendetsuenean zegoen etxe handi baten aurrean gelditu ginen. Pasarazi egin gintuzten eta, itxaronaldi luze baten ondoren, azkenean kontsultan onartu gintuzten, non medikua bere idazmahaiaren atzean eserita aurkitu baikenuen. Leslie Armstrongen izena ezezaguna zitzaidan, eta horrek agerian uzten du zenbateraino galdu nuen harremana nire lanbidearekin. Orain badakit Unibertsitateko medikuntza fakultateko zuzendarietako bat izateaz gain, zientziaren adar batean baino gehiagotan izen handiko pentsalari europarra ere badela.

Hala ere, haren ibilbide distiratsua ezagutzeagatik ere, ezinezkoa zen gizona begiratze hutsarekin ez txundituta geratzea: aurpegi karratu trinkoa, begi pentsakorak bekainen azpian, eta matrailezur zurruna, granitozkoa. Izaera sakoneko gizona, bizkorra, zorrotza, aszetikoa, isila, sekulakoa: honela interpretatu nuen Leslie

Armstrong doktorea. Nire lagunaren txartela eskuan zeukan, eta begirada altxatu zuen, haren hazpegi lausotuek atsegin ematen ez zioten aurpegiera batez. — Zure berri izan dut, Sherlock Holmes jauna, eta ezagutzen dut zure lanbidea, eta ez dut batere onartzen. — Horretan, doktore, ados egongo zara herrialdeko gaizkile guztiekin — esan zuen nire lagunak lasai. «Zure ahaleginak krimenaren aurkako borrokara bideratzen diren neurrian, jauna, komunitateko kide zentzudun ororen laguntza izan behar duzu, nahiz eta ez dudan zalantzarik aparatu ofiziala nahikoa dela horretarako. Zure lana kritikagarriagoa da partikularren sekretuetan sartzen zarenean, ezkutatuta edukitzea hobe den familia-arazoak azaleratzen dituzunean eta, bide batez, zu baino lanpetuago dauden gizonei denbora galarazten diezunean. Une honetan, adibidez, zurekin hitz egin beharrean tratatu bat idazten aritu beharko nuke».

«Zalantzarik gabe, doktore; eta, hala ere, elkarrizketa tratatua baino garrantzitsuagoa izan daiteke. Bide batez, esan diezazuket zuk arrazoi osoz kritikatzeko duzunaren kontrakoa egiten ari garela, eta ahaleginak egiten ari garela kasua polizia ofizialaren esku dagoenean

halabeharrez gertatuko litzatekeen edozein gai pribaturen azalpen publiko oro saihesteko. Herrialdeko indar erregularren aurretik doan aitzindari ez-ofizialtzat har nazakezu. Godfrey Staunton jaunaz galdetzera etorri natzaizu». «Zer gertatzen zaio?». «Ezagutzen duzu, ezta?». «Nire lagun mina da». «Ba al dakizu desagertu egin dela?» «A, noski!» Ez zen inolako aldaketarik izan doktorearen hazpegi angelutsuen adierazpenean. «Bere hoteletik joan zen bart. Ez dakigu ezer berari buruz». «Itzuliko da, zalantzarik gabe». «Bihar unibertsitateko futbol partida da». «Ez zaizkit batere interesatzen haur-jolas horiek.

Gazte horren patuak biziki kezkatzen nau, ezagutzen baitut eta atsegin baitut. Futbol-partida ez da nire asmoetan sartzeko». «Orduan, Staunton jauna non dagoen ikertzen laguntzeko eskatzen dizut. Badakizu non dagoen?».

«Jakina ezetz». «Atzotik ez duzu ikusi?» «Ez, ez dut ikusi.» «Staunton jauna gizon osasuntsua al zen?» «Jakina.» «Inoiz ikusi al zenuen gaixorik?» «Inoiz ez.» Holmesek paper orri bat jarri zuen medikuaren begien aurrean. — Orduan agian hamahiru gineatako erreziboa emango didazu, Godfrey Staunton jaunak joan den hilean Cambridgeko Leslie Armstrong doktoreari ordaindutakoa. Idazmahai gaineko paperen artetik atera dut. Medikua haserre gorritu zen. — Ez dut uste azalpen bat emateko arrazoirik dagoenik, Holmes jauna. Holmesek bere liburuxkan gorde zuen berriro ordainagiria. — Azalpen publikoren bat nahiago baduzu, lehenago edo geroago eman egin beharko duzu — esan zuen —. Esan dizut isilaraz dezakedala beste batzuek argitaratu beharko dutena, eta benetan zuhurragoa litzateke dena konfiantza osoz kontatzea. — Ez dakit ezer horri buruz. — Izan al duzu Staunton jaunaren berririk Londresen?

— Noski ezetz. — Hara, hara, berriro postetxea! — hasperen egin zuen Holmesek nekatu antzean —. Godfrey Stauntonek atzo arratsaldeko seiak eta laurdenetan Londrestik telegrama larri bat bidali zizun — haren desagerpenarekin zerikusia duen telegrama bat, zalantzarik gabe —, baina zuk ez duzu jaso. Arduragabekeria barkaezina da. Hemengo bulegora joango naiz kexa bat aurkeztera. Leslie Armstrong doktorea jauzi batez altxatu zen bere idazmahaiaren atzetik, eta aurpegi beltzarana gorri-gorri zeukan. — Mesedez, irten nire etxetik, jauna — esan zuen —. Lord Mount-James nagusiari esan diezaiokezu ez dudala berarekin eta bere agenteekin zerikusirik izan nahi. Ez, jauna, ezta beste hitzik ere! — Amorruez jo zuen txirrina. — John, lagundu jaun hauei ateraino lagundu! Etxezain harroputz batek zorrotz eraman gintuen ateraino, eta kalean elkartu ginen. Holmes barrez lehertu zen. — Leslie Armstrong doktorea, zalantzarik gabe, kemen eta izaera handiko gizona da — esan zuen —. Ez dut inor ikusi, bere talentua horretara bideratuko balu, Moriarty ospetsuak utzitako hutsunea betetzeko gaitasun handiagorik zuenik. Eta orain, nire Watson gaixoa, hemen gaude, abandonaturik eta lagunik gabe hiri abegigaitz honetan, zeinetatik ezin garen irten gure kasua alde batera utzi gabe. Armstrongen etxe aurreko ostatu txiki hau bereziki egokitzen da gure beharretara. Aurrealdeko gela bat hartuko bazenu eta gaua pasatzeko beharrezkoa dena erosiko bazenu, agian nik ikerketa batzuk egiteko denbora izango nuke». Hala ere, ikerketa gutxi horiek Holmesek uste baino prozesu luzeagoa izan ziren, ez baitzen ostatura itzuli bederatziak aldera arte.

Zurbil eta lur jota zegoen, hautsez estalita eta goseak eta nekeak ahituta. Afari hotz bat zeukan mahai gainean zain, eta, bere beharrak ase eta pipa piztu ondoren, prest zegoen ikuspegi hori hartzeko, bere arazoak gaizki zihoazenean zein barregarria eta zein filosofikoa zen ikusteko. Zalgurdi baten gurgipen hotsak altxatu eta leihora atera zuen. Bi zaldi grisek tiratutako brougham bat, gas-farola baten argipean, doktoarean ate aurrean zegoen. — Hiru ordu daramatza kanpoan — esan zuen Holmesek —; sei eta erdietan irten zen, eta itzuli da. Horrek hamar edo hamabi miliako erradioa suposatzen du, eta egunean behin, edo batzuetan bitan, egiten du. — Ez da ezohikoa jardunean dagoen mediku batentzat. — Baina Armstrong ez da benetan jardunean dagoen medikua. Irakaslea eta aholkularia da, baina ez zaio medikuntza orokorra interesatzen, bere idazlan zientifikoetatik arreta galtzen baitu.

Zergatik egiten ditu, orduan, bidaiak luze horiek, gogaikarri gertatu behar zaizkionak, eta nor bisitatzen du? — Bere kotxezaina... «Nire Watson maitea, zalantzan jar dezakezu harengana jo nuenik lehenik? Ez dakit bere berezko gaiztakeriagatik izan zen, edo bere nagusiaren bultzadagatik, baina zakurra nire gainera botatzeko ausardia izan zuen. Hala ere, ez zakurrari ez gizonari ez zitzaien gustatu nire makilaren itxura, eta kontua ezerezean geratu zen. Harrez gero, harremanak tirabiratsu bihurtu ziren, eta ikertzen jarraitzea eztabaidatik kanpo geratu zen. Jakin dudan guztia gure ostatuko patioko natibo atsegin batek kontatu dit. Berak hitz egin zidan doktoarean ohiturez eta eguneroko ibilbideaz. Une horretan, bere hitzei pisua emateko bezala, zalgurdia ate aurrean gelditu zen». «Ezin izan zenion jarraitu??». «Bikain, Watson! Gaur gauean bikain zaude. Ideia burutik pasa zitzaidan.

Ikusiko zenuen bezala, bizikleta-denda bat dago gure ostatuaren ondoan. Korrika sartu, bizikleta bat alokatu eta zalgurdia bistatik erabat desagertu baino lehen abiatu nintzen. Berehala heldu nion, eta gero, ehun metro inguruko zentzuzko distantziara mantenduz, haren argiei jarraitu nien hiritik irten ginen arte. Landa-bidean ondo sartuta geundela, gertakari umiliagarri bat gertatu zenean. Zalgurdia gelditu egin zen, medikua jaitsi egin zen, ni ere gelditu nintzen tokira joan zen bizkor, eta esan zidan, doinu sarkastiko ezin hobez, beldur zela bidea estua izango ote zen, eta espero zuela bere zalgurdiak nire bizikleta ez oztopatzea. Ezer ez zitekeen miresgarriagorik izan bere adierazteko modua baino. Berehala aurreratu nintzen zalgurdira, eta, errepide nagusian mantenduz, kilometro batzuk egin ondoren, leku egoki batean gelditu nintzen, zalgurdia aurrera zihoan ikusteko. Hala ere, ez zegoen haren arrastorik ere, eta argi geratu zen nik ikusitako bigarren mailako bideetako bat hartu zuela.

Nire pausoetara itzuli nintzen, baina berriro ez nuen zalgurditik ezer ikusi, eta orain, ikusten duzunez, nire atzetik itzuli da. Hasieran, jakina, ez nuen inolako arrazoi zehatzik bidaiak horiek Godfrey Stauntonen desagerpenarekin lotzeko, eta Armstrong doktoareari dagokion guztia gaur egun interesatzen zaigulako ikertzeko joera nuen, baina orain, txango horietan jarraitu dezakeen edonor hain gertutik zaintzen ari naizela ikusten dudanean, kontua garrantzitsuagoa dela dirudi, eta ez naiz pozik egongo arazoa argitu arte». «Bihar jarrai diezaiokegu». «Benetan? Ez da uste bezain erraza. Ez duzu Cambridgeshireko paisaia ezagutzen, ezta? Ez da ezkututzen uzten den leku bat. Gaur gauean igaro dudan inguru hau

guztia esku-ahurra bezain laua eta garbia da, eta jarraitzen diogun gizona ez da inondik ere tontoa, gau honetan argi eta garbi erakutsi duen bezala.

Telegrama bat bidali diot Overtoni Londreseko edozein berritasunen berri eman diezagun helbide honetara, eta, bitartean, Armstrong doktoreari baino ezin diogu jaramonik egin. Haren izenari esker, Stauntonen premiazko mezuaren kopian irakurri ahal izan dut bulegoko neska atsegina. Berak badaki gaztea non dagoen — horretaz ziur nago —, eta berak baldin badaki, orduan gure errua izango da hori ere jakitea lortzen ez badugu. Oraingoz onartu beharra dago karta irabazlea bere esku dagoela eta, dakizunez, Watson, ez da nire ohitura jokoa egoera horretan uztea. Hala ere, biharamunak ez gintuen gehiago misterioaren konponbidera hurbildu. Gosaldu ondoren ohar bat eman ziguten, eta Holmesek irribarre egin zidan. Jauna [zioen]: Ziurta diezazuket denbora galtzen ari zarela nire mugimenduen zelatan.

Atzo gauean ikusi zenuen bezala, leihatila bat daukat nire zalgurdiaren atzealdean, eta hogei miliako ibilaldi bat egin nahi baduzu, abiatu zinen lekura eramango zaituena, jarraitu egin behar didazu. Bitartean, esan diezazuket ni zelatatzeak ez diola batere lagunduko Godfrey Staunton jaunari, eta ziur nago zaldun horri eman diezaiokeen zerbitzurik onena Londresera berehala itzultzea dela, eta bere enplegatzaileari jakinaraztea ezin izan duela aurkitu. Cambridgeko egonaldia denbora galtzea izango da.

— Medikua antagonista zintzoa eta zintzoa da — esan zuen Holmesek —. Beno, beno, piztu nire jakin-mina, eta benetan gehiago jakin behar dut utzi aurretik. — Zure zalgurdia atean dago orain — esan nuen —. Hor dago, bertara igotzen. Gure leihora begira ikusi nuen. Eta bizikletarekin zortea probatzen badut? «Ez, ez, Watson maitea! Zure berezko zorrotasunak merezi didan begirune guztiarekin, ez dut uste doktore agurgarriaren mailan zaudenik. Uste dut agian nire kabuz ikerketa batzuk eginez lor dezakedala gure helburua. Beldur naiz ez ote zaitudan zure esku utzi behar, bi arrotz bitxi landagune lasai batean agertzeak nahiko nukeena baino esames gehiago sor baititzake. Zalantzarik gabe, hiri agurgarri honetan entretenituko zaituzten gauzak aurkituko dituzu, eta ilundu baino lehen berri hobeak ekartzea espero dut». Beste behin ere, ordea, nire laguna etsipena hartzera destinatua zegoen.

Gauetz nekatuta eta ezer lortu gabe itzuli zen. «Egun hutsala izan dut, Watson. Doktorearen argibide orokorrak jaso ondoren, Cambridge inguruko herri guztiak bisitatzen eman nuen eguna, tabernariekin eta tokiko beste informazio-iturri batzuekin notak alderatzen. Bide luzea egin dut: Chesterton, Histon, Waterbeach eta Oakington arakatu ditut, eta guztiak izan dira etsigarriak. Egunero bi zaldik tiratutako brougham baten presentzia nekez gertatuko zen oharkabean herri lasai haietan. Doktoreak berriro asmatu du. Ba al dago telegramarik niretzat?» «Bai; ireki egin dut. Hemen dago: «Galdetu Pompeyri buruz Trinity Collegeko Jeremy Dixoni.» «Ez dut ulertzen.» «O, nahiko argi dago. Gure lagun Overtonena da, eta nik egindako galdera bati erantzuten dio. Ohar bat bidaliko diot Jeremy Dixon jaunari eta, orduan, ez dut zalantzarik gure zortea aldatuko dela.

Bide batez, ba al dago partidari buruzko berririk?» «Bai, tokiko arratsaldeko egunkariak kontakizun bikaina du azken edizioan. Oxfordek gol bat eta bi entsegu egin zituen. Kronikako

azken esaldiek hau diote: «Light Blues taldearen porrota Godfrey Staunton nazioarteko izarraren zoritxarreko hutsuneagatik izan daiteke, haren falta partidaren une bakoitzean nabaritu baitzen. Hiru laurdeneko lerroko konbinazio faltak eta erasoan zein defentsan zuen ahultasunak asko neutralizatu zituzten aurrelari sendo eta langileen ahaleginak.» «Orduan gure lagun Overtonen susmoak bete egin dira», esan zuen Holmesek. «Pertsonalki, bat nator Armstrong doktorearekin, eta futbola ez da nire interes-eremuan sartzen. Goiz oheratu gaur gauean, Watson, aurreikusten baitut bihar gertakariz betetako eguna izan daitekeela». Izutu egin nintzen Holmes lehen aldiz hurrengo goizean ikustean, sutondoan eserita baitzegoen bere xiringa hipodermiko ñimiñoari eusten. Instrumentu hori bere izaeraren ahulezia bakarrarekin lotzen zuen, eta okerrenaren beldur nintzen eskuan dizdizka ikusi nuenean. Barre egin zuen nire atsekabe aurpegiaren aurrean, eta mahai gainean utzi zuen. «Ez, ez, lagun maitea, ez dago larritzeko arrazoirik. Oraingo honetan ez da gaizkiaren tresna, baizik eta gure misterioa argituko duen giltza. Xiringa honetan jartzen ditut itxaropen guztiak. Errekonozimendu espedizio txiki batetik itzuli berria naiz, eta dena ondo dago.

Hartu gosari on bat, Watson, gaur Armstrong doktorearen arrastoari jarraitzeko asmoa baitut, eta behin aurkitu dudanean ez naiz atsedean hartzera edo bazkaltzera geldituko bere gordelekuraino zelatatu arte». — Orduan — esan nuen —, hobe dugu gosaria eramatea, bera goiz irteten baita. Bere zalgurdia atean dago. — Berdin dio. Utzi joaten. Oso azkarra izango da nik jarraitu ezin dudan leku batera gidatzea lortzen badu. Amaitzen duzunean, jaitsi nirekin eta detektibe bat aurkeztuko dizut. Espezialista bikaina da gure zereginean. Jaitsi nintzenean, Holmesen atzetik joan nintzen ukuiluko patioraino, eta han box bateko atea ireki eta zakur bat atera zuen, belarriak erorita eta ilaje zuri eta marroia, beagle baten eta foxhound baten arteko nahasketa. — Pompey aurkezten dizut — esan zuen.

— Pompey inguruko ehiza-txakurren harrotasuna da; ez da oso azkarra, bere gorputz-egituragatik ikus daitekeen bezala, baina arrasto-txakur nekaezina da arrasto bati jarraitzen dionean. Tira, Pompey, beharbada ez zara azkarra izango, baina azkarregi izango zara Londreseko bi jaun arruntentzat. Beraz, larruzko uhal hau lepokoari lotzeko askatasuna hartuko dut. Orain, mutil, zatoz nirekin eta erakutsi zer dakizun. Medikuaren ateraino eraman zuen. Txakurrak inguruak usnatu zituen une batez, eta gero, hunkidurazko garrasi zorrotz batez, korrika abiatu zen kalean barrena, uhalari tiraka, azkarrago joateko ahaleginean. Ordu erdi barru, hiritik irten ginen eta presaka gindoazen landa-bide batetik. — Zer egin duzu, Holmes? — galdetu nion. — Trikimailu zahar eta errespetagarria, baina erabilgarria batzuetan. Gaur goizean medikuaren patioan sartu eta atzeko gorpila xiringaz busti dut.

Txakur batek anisaren arrastoa jarraituko du hemendik John edo «Groats-eraino, eta gure lagun Armstrongek Cam ibaia zeharkatu beharko luke Pompey despistatu aurretik. O, zein maltzur lotsagabea! Horrela ihes egin zidan lehengo gauean».

Zakurra bat-batean jiratu zen errepide nagusitik belarrez estalitako bide bateraino. Kilometro erdi aurrerago, hau beste errepide zabal batean amaitzen zen, eta arrastoak bat-batean eskuinera egiten zuen, irten berri ginen herrirantz. Errepideak bihurgune bat egiten zuen herriaren hegoaldean, eta abiatu ginenean hartu genuenaren kontrako norabidean jarraitzen

zuen. — Desbideratze hori gure onurarako bakarrik izan da orduan? — esan zuen Holmesek —. Ez naiz harritzen herri horietan egindako ikerketek emaitzarik eman ez izana. Doktoreak ahalik eta gehien jokatu ditu bere kartak, eta batek jakin nahiko luke hain engainu landuaren arrazoa. Gure eskuineko Trumpington herria izan beharko luke. Eta, Jupiterrengatik!, hor dator zalgurdia izkina biratuz. Azkar, Watson, azkar, edo galduta gaude! Hesi batetik landa batera jauzi egin zuen, Pompey uzkur bat bere atzetik eramanez.

Hesiaren babeslekura iritsi orduko, zalgurdia trakets igaro zen. Armstrong doktorea ikusi nuen barruan, sorbaldak makurtuta, burua esku artean, larritasunaren irudi bizia. Nire lagunaren aurpegirik serioenetik jakin nuen berak ere ikusia zuela. «Beldur naiz gure bilaketak amaiera iluna izango duela», esan zuen. «Laster jakingo dugu. Goazen, Pompey! A, landa-etxetxea da!». Zalantzarik gabe, gure bidaiaren amaierara iritsiak ginen. Pompey korrika eta zaunka ari zen, urduri, burdin hesiaren ondoan, non oraindik ere gurdiaren gorpilen arrastoak ikusten baitziren. Bidexka batek etxetxo bakartiraino eramaten zuen. Holmesek zakurra hesira lotu zuen eta aurrera jarraitu genuen azkar. Nire lagunak etxeko atea jo eta berriro jo zuen, erantzunik jaso gabe.

Eta, hala ere, etxetxea ez zegoen hutsik, hots motel bat iritsi baitzitzagun belarrietara: miseriaren eta etsipenaren intziri moduko bat, erabat malenkoniatsua. Holmes zalantzati gelditu zen eta atzera begiratu zuen, egin berri genuen bidera. Zalgurdi bat zetorren handik behera, eta ez zegoen dudarik zaldi gris haiek zirela. — Jupiterren alde, medikua itzultzen ari da! — oihu egin zuen Holmesek. — Horrek erabakitzen du dena. Zer esan nahi duen jakin behar dugu iritsi baino lehen. Atea ireki eta ezkaratzera sartu ginen. Hotsa ozenagoa egin zen, doluzko intziri luze eta sakon bihurtu arte. Goitik zetorren. Holmes korrika igo zen eta ni atzetik joan nintzaion. Ate erdi ireki bati bultza egin zion, eta izututa geratu ginen biok agertu zitzaigun eszenaren aurrean. Emakume bat, gazte eta ederra, hilda zegoen ohe gainean.

Bere aurpegi zurbil bareak, begi urdin, itzali eta zabal-zabalekin, gorantz begiratzen zuen, urrezko ile nahaspila handi baten artean. Ohearen oinetan, erdi eserita, erdi belauniko, aurpegia maindireetan sarturik, mutil gazte bat zegoen, gorputza negar-zotinka zuela. Hain zegoen oinaze mingotsean murgildurik, ezen ez baitzuen begirik altxatu Holmesen eskua sorbaldan pausatu zitzaion arte. — Zu al zara Godfrey Staunton jauna?

— Bai, bai, ni naiz... baina beranduegi datoz. Hil egin da. Gizona hain zegoen txundituta, non ezin baikenion ulertarazi detektibeak baino ez ginela. Holmes kontsolamenduzko hitz batzuk esaten saiatzen ari zen, eta bere desagertzeak bere lagunei eragindako alarma azaltzen, eskaileretan urratsak entzun zirenean eta atean Armstrong doktorearen aurpegi zorrotz, galdetzaile eta markatua agertu zenean. — Beraz, jaunok — esan zuen —, helburua lortu dute eta, zalantzarik gabe, une bereziki delikatua aukeratu dute tartean sartzeko. Ez dut iskanbilarik sortuko heriotzaren aurrean, baina benetan diotsuet, gazteagoa banintz, zuen jokabide lotsagabea ez litzatekeela zigorrik gabe geratuko. — Barkatu, Armstrong doktorea, uste dut ez garela ondo ulertzen ari — esan zuen nire lagunak duintasunez —. Behera etortzerik izango bagenu, agian elkarri argitu ahal izango genioke kontu tamalgarri hau.

Handik minutu batera, doktore zorrotza eta gu beheko egongelan geunden. — Eta, jauna? — esan zuen. — Lehenik eta behin, ulertu nahi dut ez dudala Lord Mount-Jamesentzat lan egiten eta, gai honetan, nire sinpatiak noble horren guztiz kontra daudela. Gizon bat galtzen denean, nire eginbeharra da non dagoen jakitea, baina hori egin ondoren, niri dagokidanean amaitzen da kontua; eta ezer delikatzailerik ez dagoen bitartean, askoz gehiago kezkatzen nau eskandalu pribatuak isilarazteak publizitatea emateak baino. Uste dudana bezala, gai honetan legea hausten ez bada, nire diskrezioan eta laguntzan konfiantza osoa izan dezakezu gertakariak prentsatik kanpo mantentzeko». Armstrong doktoreak aurrerantz pauso azkar bat eman eta Holmesen eskua indarrez estutu zuen. — Tipo jatorra zara — esan zuen —. Gaizki epaitu zaitut.

Eskerrak ematen dizkiot zeruari, Staunton gaixoa egoera honetan bakarrik utzi nuenean sentitu nuen damuak nire zalgurdiarekin buelta eman eta zu ezagutzera eraman ninduelako. Dakizun guztia jakinda, egoera oso erraz azaltzen da. Duela urtebete, Godfrey Staunton Londresen bizi izan zen denbora batez, eta bere ostalariaren alabaz maitemindu zen, harekin ezkondu baitzen. Neska ederra bezain ona zen, eta argia bezain onbera. Gizon batek ere ez luke zertan lotsatu horrelako emazte batez. Baina Godfrey aitona zahar haren oinordekoa zen, eta aski ziurra zen haren ezkontzaren albisteak haren herentziaren amaiera ekarriko zuela. Nik ongi ezagutzen nuen mutila, eta maite nuen haren dohain handi eta bikainengatik. Ahal nuen guztia egin nuen gauzak txukuntzen laguntzeko.

Ahal genuen guztia egin genuen mundu guztiari ezkutatzeko; izan ere, halako zurrumurru bat zabaltzen denean, laster iristen da denen belarrietara. Etxe bakarti honi eta neskaren zuhurtziari esker, Godfreyk lortu du orain arte. Inork ez zuen haren sekretua ezagutzen, nik eta une honetan Trumpingtonera laguntza bila joan den morroi bikain batek izan ezik. Baina azkenean kolpe ikaragarria iritsi zen, emazteari jo zuen gaixotasun arriskutsu baten itxurakoa. Tisia oso bortitza zen. Mutil gizajoa minez erdi zoraturik zegoen, eta, hala ere, Londresera joan behar izan zuen partida hura jokatzera, ezin baitzen hartaz libratu bere sekretua salatuko zuten azalpenak eman gabe. Telegrafoz animatzen saiatu nintzen, eta berak erantzun bat bidali zidan, ahal nuen guztia egiteko eskatuz. Hori izan zen telegrama, nolabait ulertezina, zuk ikusia dirudiena. Ez nion esan arriskua zein premiazkoa zen, banekien hemen ezin nuela ezer egin, baina egia neskaren aitari bidali nion, eta Godfreyri jakinarazi zion, zuhurtziarik gabe.

Emitza izan zen bera berehala etorri zela erdi erotuta, eta egoera berean egon dela, bere ohearen oinean belauniko, harik eta gaur goizean heriotzak bere sufrimenduak amaitu dituen arte. Hori da dena, Holmes jauna, eta ziur nago konfiantza izan dezakedala zure diskrezioan eta zure lagunarenean». Holmesek bostekoa eman zion medikuari. «Tira, Watson», esan zuen, eta neguko egun bateko eguzki-argi zurbilean atera ginen oinazearen etxe hartatik.